

Donibaneko Juan Huarteren Ikuspegi Pedagogikoa¹

Irene López-Goñi

Psikologia eta Pedagogia Saila
Nafarroako Unibertsitate Publikoa

GAKO-HITZAK: Ikerketa historikoa. XVI. mendea. Nafarroa. Biografia. Lanbide-orientazioa.

Artikulu honen ekarmeraren interes zentroa, Donibaneko Huarteren paperak bigarren mailako iturrietan jasotzen duen tratamenduan oinarritzen da, batez ere Hezkuntzaren Historia edo Pedagogiaren Historia jotzen duten iturrietan. Beraz, artikulu honen funtsa, irakaskuntza jakintza esparrutik, iturri hauen edukiaren analisia izango da. Lau ardatz oinarritzat hartuta (biografia/testuingurua, lana, ekarpen pedagogikoa eta iraupena) Huarteren lana aztertzen da bertan.

1. Sarrera

Jakintza esparru ezberdinetan Donibaneko Juan Huarte baxenabartarren garrantzia ezin daiteke ukatu. Honela, filosofia, literatura, medizina, historia eta psikologia jakintza alorretatik bere ekarpenak ikertu dira. Artikulu honen proposamena Hezkuntzaren Zientziaren alorretik dator, esparru honetan ere, Donibaneko Huarte doktoarearen ekarpenak bikainak baitira.

Horregatik Huarteren lana, gure diziplinaren Historian (Pedagogiaren Historia edo Hezkuntzaren Historia) tratatu, eskuliburu eta bildumatan agertu da. Artikulu honetan, Donibaneko Juan Huartek egindako proposamenek hezkuntza iturri hauetan izan duten isla aztertuko ditugu. Analisi konparatiboa, gaztelaniaz idatzitako edo hizkuntza honetara itzulitako Hezkuntzaren Historiari buruzko tratatu orokorren erlaitzean egingo dugu.

¹ Artikulu hau, «Juan Huarte au XXIE siècle» izeneko kolokioan egileak aurkeztutako komunikazioan oinarrituta dago.

Iturri hauen irakurketaren bidez, geure ikuspuntutik interesgarriak diren alderdiak alderatuko ditugu; interesgarriak bai beren desadostasunagatik (zenbait alderditan ez dute bat egiten, adibidez, egileek aipatzen dituzten zenbait datu biografiko edo efemeridetan), baita beren gaindikortasunagatik ere (batzuek Donibaneko Huarte, Bokaziozko Bideratzearen edo Pedagogia Bereizlearen aitatzat hartzen dute). Analisi konparatibo hau burutzeko, erlazio berme bezala balioko duten lau ardatz kategoriko erabiliko ditugu; ardatz hauek dira: biografia/testuingurua, lana, ideei pedagogikoak, ekarpena/irautea.

Donibaneko Juan Huarte nafar doktorea, ospe handiko pertsonaia da. Bere herrikideak horrela jo dutenez zenbait omenaldi eskaini diote. Adibide ezberdinek frogatzen dute mirespen hau. Zentzu honetan, 1933ko urriak 15eko efemeridea interesgarria da; egun honetan bi nafarretako agintaritzek gure pertsonaiari omenaldi bat egin zioten. Egun hartan Iruñeko hiriko Takonerako parkean oroigarri simple bat inauguratu zen eta, batera, On Gregorio Marañonek konferentzia bat eman zuen. Hurrengo urtean, apirilak 12an, Iruñeko hiri honek, inauguratutako baxuerliebearen kopia bat eman zion Donibane Garaziko herriari.

1975. urtean, baita ere Iruñean, *Argitasunaren Azterketaren [Examen de Ingenios]*² agerpenaren IV. Urteurrena ospatu zen. Une hartan, Nafarroako Psikologia Institutuko zuzendaria, on Federico Soto Yárritu, eta Unibertsitate Konplutentseko Psikologia katedratikoa, J.L. Pinillos Díaz Dka., baxenabartarrari buruzko irakurketa emateko arduradunak izan ziren.

Bestalde, Iruñeko Eskola Normalaren «Donibaneko Huarte» izendape-na dugu. Titulu hau, bere klaustroak 1946. urtean erabaki zuenetik zeukan, eta XX. mendeko epe luze batetan zehar mantendu zuen.

Humanista honen nortasunarenganako bere herrikideen interesa, Iruñean argitaratzen den Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza Zientzien egungo aldizkariaren izenburuak agerian uzten du. Hain zuzen ere, unibertsitateko aldizkari hau 1989. urtean sortu zen, eta bere lehenengo alean, Donibaneko Juan Huarteren heriotzaren IV. mendeurrena dela-eta emandako konferentziak agertuko dira. Konferentzia hauek 1988. urteko azaroan Iruñean ospatu ziren. Aldizkariak 1999. urtean, bere bigarren alean, artikuluzabal batez gain, dagoeneko aipatu dugun Gregorio Marañonek Iruñean emandako Huarteri buruzko konferentziaren testua argitaratu zuen, hots, Ateneo Navarro delakoak 1933. urtean argitaratu zuena.

Ezin ditugu bere andaluziar herrikideak ahaztu; hauek, omenaldi bezala, Linareseko Irakaskuntza Ertaineko Institutuari bere izena jarri zioten. Gainera, gure mugen barne eta kanpo, Huarteren gai bakarreko lanari eta biografiari buruzko bibliografia ugari dago; hau, bere alderdi anitzeko lanari

² Xabier Kintanak 1996an lan honen itzulpena egin zuen eta *Zientzietarako Argimenen Azterketa* izenburupean argitaratu zuen.

dagokion bezala, ikuspuntu ezberdinetatik aztertua izan da: medizina, literatura, filosofia, soziologia, psikologia, historia, politologia, e.a.³

2003. urtean, Huarteren lana ezagutu arazi eta ikerketak sustatzeko elkarre bat jaiotzen zen: «Association Internationale des Amis de Juan Huarte». Elkarre honen jaiotzarekin batera, Pabengo Unibertsitatea, Baionako disziplinen arteko Fakultatea eta Eusko Ikaskuntza elkarrearen laguntzaz, besteak beste, 2003. urteko martxoaren 27 eta 28an kolokio bat antolatu zen, «Juan Huarte au XX^e siècle» izenpean. Bertan, disziplina ezberdinetako Frantzia, Espainia eta Euskal Herriko hainbat espezialistek parte hartu zuten.⁴

2. Biografia eta testuingurua

Nahiz eta gure pertsonaiari buruzko datu asko ez ezagutu, bere jatorria ez da inoiz zalantzan jarri. Bera izan zen datu hau argi eta garbi utzi zuena, bere liburuko egiletasunean zalantzarik gabe aipatzerakoan: «Donibaneke Juan Huarte doktoreak egindakoa, Donibane-Garazin jaiotua».

Hain zuzen ere, Juan Huarte, haur bat zenean, bere gurasoekin Andaluziara bidalitako baxenabartarra dugu. Bere jaiotze eta heriotza datari buruz zenbait desadostasun dago. Egile batzuek datak, hurrenez hurren, 1530 eta 1588. urteetan kokatzen dituzten bitartean, beste batzuek jaiotza data 1529. urtean ezartzen dute —Mauricio de Iriarte jesuita nafarraren hipotesia—. Dena den, jaiotza honi buruzko zehazkizun gehiagorik ez dago, garai hartan Donibane Garazin ez baitzegoen parrokia-inkripzio libururik.

Begiratu ditugun artean, Hezkuntzaren Historiari buruzko lanik zaharrenek (Montilla, 1957: 163), eta beste dekanok ikerlari batenak (Gutiérrez, 1968: 192), egilearen biografiari buruz beste ikerlari batzuekin topo egiten duten hiru gai zehazten dituzte: 1591. urtean hil zela, Huescan giza zientziak ikasi zuela eta Felipe II-aren mediku izan zela. Hiru gai hauek erreferentziaturik baino dokumentatu barik aurkitu ditugu, eta ziur aski okerrekoak dira (Saez, 1989: 84); horrexegatik ez dugu gai hau gehiago nabarmenduko.

Doktorearen bizitzaren gainean dokumentazio iluntasuna den arren, ikeritutako egileek gai batetan ados daude; gai hau aipatzen dutenean, nahiz eta probabilitate eran aipatu, bat egiten dute. Gai hau Juan Huartek jasotako hezkuntza da, eta diotenez ziurrenik Baezan ikasi zuen eta ondoren medikuntza Alcalá de Henaresen, batxilergo eta lizentziatu maila eskuratu zituen, eta 1559. urtean doktore maila lortuz (Galino, 1968: 360). Aipatutako pedagogoen artean, inork ez du lizentziatura-hartzea Baezako Unibertsitatean

³ Juan Huarteren bigarren mailako iturriei buruzko zerrenda zehatz bat, honako lanean topa daiteke: GRANJEL, L.S. (1988): *Juan Huarte y su «Examen de ingenios»*, Salamanka.

⁴ Kolokio honen aktak kontsultatzen ahal dira: DUCHÉ-GAVET, Véronique (Koord) (2003): *Juan Huarte Au XX^e Siècle. Actes de Colloque*, Baiona, Atlantica.

kokatzen, hots, Alcaláko ikasketetatik atzerantz kokatzen, ezta hiri honetako erlijioz aldatutako irakasleekin mantendutako kontaktuak ere.

Interesgarria deritzogu, behintzat laburki, Europako zonalde honen tes-tingurua ezagutzea Juan Huarteren jaiotza eta haurtzaro garaian. Europa-ko une hartako gertakari kultural interesgarrienaren aipamena ezinbestekoa dela uste dugu: Luteroren erreforma eta honek ekarriko duen konfigurazio erlijiosoak. Honek, gainera, eragin zuzena izango du heziketan; zehazki, populazioaren alfabetatzean, beren atxikipen erlijiosoaren arabera. Honela, erreforma protestanteak proposatutako beharrak, hots, Biblia era pertsonal eta indibidual batez interpretatzeak, eta beraz, bere irakurketaren beharrak, herri xehearen irakurtze gaitasunaren irakaskuntza eta ikasketa suposatzen du. Une horretan, Biblia herri-hizkuntzara itzuliko da, eta orduan bereiztu ahalko da Europa protestantea, populazio alfabetatuagoa duena, eta Europa katolikoa, bere populazioan analfabetismo indize arras altua duena, eta urte askotan zehar mantenduko duena⁵.

1512. urtea arte Nafarroa erresuma bat izango da, Gaztelako Errege-
tzak konkistatu eta anexionatu arte. Iparraldeko eskualdea, Nafarroa Behe-
ra, «merindat de Ultra Puertos» bezala ezagutua zena, zatikatuta geratu
zen, eta 1520. urtetik aurrera, ezarrita dagoen antzinako erresumaren bana-
keta egonkortuko da. Garai honetan Angulème-ko Margaritak pentsaera
humanistari buruzko zentro bat antolatuko du, Nérac-eko gazteluan izuga-
rri aktiboa eta XVI. mendearen lehenengo herena arte mantenduko dena;
bertatik humanista ospetsuak pasako dira, besteak beste, Calvino, Suitza-
rantz ihes egiten zuenean (Goyhenetche, 1989: 60). Erregina hau, zeharo
landua, zenbait hizkuntzen menperatzailea, *Heptameron* delakoaren egilea
izan zen, Boccaccio-ren *Decameron* ezagunaren antzera idatzitakoa. Angulè-
me-ko Margaritaren eragina nabaria da, baita Francisco I-aren bere anaiare-
na ere, Frantziako letren eta arteen garapenean (Debesse, 1973: 276).

1540 eta 1550. urteen artean, aitorten kalbinisten agerraldiak emango
dira Pirinioetako iparraldean, eta 1560. urtean Juana III-ak (1555-1572),
Albret-eko Juanaren ilobak, erlijio hau aitortuko du. Nafar erregina honen
interesari esker, Joannes Leizarragak euskarara itzuliko du Biblia. Lan hau,
Nafarroako armariarekin, 1571. urtean inprimatuko da. *Jesus Christ Gure
Launaren Testamendu Berria* honek, itzultitako gainontzeko liburu sakra-
tuen edo beste hizkuntzatan idatzitakoen funtzio berbera mantenduko du,

⁵ Erligio ezberdinek (beste eragileen artean) sortutako alfabetatze maila ezberdinek de-
fendatzen duen tesia, hezkuntzaren historialari askok guztiz onartuko dute. Honela, Carlo
M. CIPOLLA (1983) egilearen hausnarketak aztertu daitezke; *Educación y Desarrollo en Oc-
cidente*, Bartzelona, Ariel, 72 orria. Baita ere GRAFF. H.-ren lanean (1987): *The Legacies of
Literacy*, Bloomington, Indiana University Press; nahiz eta alfabetatze prozesua erlijio kon-
tuen aldagai dependiente bat izan mende hartan, aldiz, ez da aldagai honen menpe baka-
rrik egongo. Honela dio A. VIÑAO (1999): *Leer y escribir. Dos prácticas culturales*, Mexi-
ko, Fundación educación, voces y vuelos, 106-108 orriak.

hau da, Biblia ezberdinen bateraketa eta normalizazio idatziaren idatzitako erreferentziaren funtzioa.⁶

Bi Nafarroen arteko erlazioengan erlijioak izango duen eraginari dago-kionez, Jimeno Juríok (1997: 71) honako dio, «Beste Nafarroarekiko agin-pide zibilaren eta eklesiastikoen jarrera azaltzeko hitzik egokiena errezeloa da». Konponbide konplexua izango duen haustura politiko eta teologiko garrantzitsu bat emango da bi Nafarroen artean. Bata, gaztelarra eta erre-formaren aurkakoa, eta bestea, nafarra eta protestantea⁷.

Dokumentatu barik dauden zergatiak direla-eta, Juan Huarteren familiak inperio aldera jotzea erabakitzen du, penintsularantz. Aztertutako pedago-goan artean, inork ez ditu Huarte familiak Gaztelarantz egindako migrazioa-ren zergatirik azaldu. Hipotesi ezberdinak daude gertakari hau azaltzeko. Iriarteko Mauricio jesuitak proposatutakoak, Arrizabalagak (1989: 31) bildu-takoak, honakoak ditugu: «Alde batetik, Ultrapuertos-eko nafarrek dituzten zailtasunak, geroz eta gehiago, beren penintsulako herrikideekin, Carlos V-ak 1530. urtean lurralde haietan egindako inperio kentzeagatik aurrera; bestetik, Nafarroan zeharo hedaturik dagoen ohiturak, hots, maiorazkoak, Juan Huar-teren gurasoak ondasunik gabe utzi zituen».

Ricardo Saez-ek (1989: 85), Rodrigo Sanz-ek proposatutako hipotesia bildu du, hots, atxikitzearen ondorioz, leinuzko Ultrapuertos-eko familien Levanterantz eta Andaluziarantz emandako migrazioari buruzkoa. Honen arabera, aipatutako familiak sozialki gaizto papera hartuko dute. Sanz-ek, Huarte familiari Gaztela aldeko papera ematen dion hipotesia zalantzan ja-rriko du, Ultrapuertos-eko herrikideek aberririk gabeko egoeratik ihes egin nahi zutela baino ez esanez.

Izan liteke Huarte familiak nolabaiteko harremana bere jatorrizko herria-ekin mantentzea, Juan Huarteren emaztea, Agueda de Velasco, Behe Nafa-rra zelako ere⁸. Halere, aztertutako pedagogoez ez dute Juan Huarteren fami-liaren jatorri euskalduna aipatzen, ezta euskal hizkuntza ezagutu zuenik ere⁹,

⁶ Era honetan, Leizarragak, euskal prosan lehenengo idazle izateaz gain, sortutako euskal humanismoaren bere ikuspuntua garatuko du, Goyhenetche-ren arabera (1989:61), lau puntutan:

- «1. eskolaren papera gizartean
2. hiritarren arteko tolerantziaren beharra
3. alfabetatzea euskaraz, gainontzeko nazioen adibidea jarraituz
4. Euskararen normalkuntza.»

⁷ Honela mantenduko da 1616. urteko abenduak 16a arte, Estatuko Kontseiluak Fran-tziarekin atxikitzea erabakitzen duenean, 1589. urtean Nafarroako Henrike III-a, Frantzia-ko IV-a bihurtu eta gero, eta gortearen afrantzeratze progresibo bat eman eta gero.

⁸ Zazpi seme-alaba izan zituzten.

⁹ Gai hau Pedagogiaren Historiari buruzko tratatuetatik kanpo aipatzen da. Honela, adi-bidez, Jon Arrizabalagak (1989: 29), Huarte «Euskaldun Unibertsala» deituko du. Rey Al-tunak (1983: 211), Huarteren elebitasunaren posibilitatea onartzen du: «bestalde, ezin daite-ke jakin zein adinetan utzi zuen bere jatorrizko lurra, eta, beraz, Ultrapuertoseko euskara lantzeko izan zuen aukera txikia da».

bere nortasunaren espainiar sentimendua argi eta garbi azaltzen duten bitartean. Gertakari hau, agian, besteak beste, egile berak, jatorrizko hizkuntzan idazteko komenigarritasunari buruz hitz egiterakoan, idazteko gaztelania nahiago duela esaten duelako emango da: «eta honela egiten dut nik gaztelaniaz, hizkuntza hau beste edozein baino gehiago menperatzen dudalako». Zentzu honetan, garai hartako egileetatik aldentzeko da, haiek Zientziarako latinez idaztea nahiago zutelako eta, ondorioz, gai honetan, Europa protestantean emandako proposamen linguistikoengana hurbilduko da.

3. Lana

Juan Huarteren liburua, bere lan bakarra, 1575. urtean Baezan inprimatu zen lehen aldiz. Honela deitua da, *Argitasunaren azterketa zientzietarako. Bertan gizonen duten gaitasuna eta bereziki bakoitzari dagokion letren generoa* [*Examen de ingenios para las ciencias. Dónde se muestra la diferencia de habilidades que hay en los hombres y el género de letras que a cada uno responde en particular*]. Izenburuak bere azken helburua argi eta garbi azalduko digu, hots, oinarrian arima guztiak berdinak izan arren, gizonen talentuen ezberdintasunak, bai zientzien ikaskuntzarako baita lanbideen burutzerako ere, izaera dela-eta emango dira.

Argitasunaren azterketak arrakasta handia lortu zuen, gure iturri guztiek azpimarratuko duten bezala. 1575. urteko lehenengo argitaratzea eta gero, *Printzea* deiturikoa, bigarrena Iruñean 1578. urtean inprimatu zen; bi urte beranduago Bilbon eta Valentzian inprimatu zen, eta urte bat beranduago Huescan. Europa mailan hedapen berezia lortu zuen, «egilearen bizian zehar zenbaitetan inprimatua izateagatik, espainiar eta atzerritar argitarapen ezberdinetan (frantsesez 1580. urtean, italiarrez 1582. urtean, ingelesez 1596. urtean, latinez 1622. urtean, alemanez 1752. urtean)» (Bowen 1986: 545).

Aipatzekoa da, gainera, espainiar Inkisizioak, espainiar eta portugaldar inkisizio *Indizean* jarriko duela liburua, 1581 eta 1583. urteetan hurrenez hurren, eta egileak egingo duen aldaketa. Debekatutako lana berriz ere argitaratuko da 1594. urtean, Huarteren heriotzaren ondotik.

4. Ekarpn pedagogikoa

Donibaneko Huarteren ideia pedagogikoak aztertzeke, bere garaiko pentsamendu korrontean kokatu behar dugu bere lana. Huarte berpizkundeko gizona dugu. Fenomeno kultural orokor honetan bereziago den manifestaldi bat kokatuko da, inplikazio pedagogiko zuzenekin, hau da, humanismoa. Manifestaldi kultural hau, oinarrian, hezkuntzazkotzat hartuta izan da, he-

mendik **Humanismo Pedagogiko** delakoa jaioko delarik, Hezkuntza Zientzian askotan erabilia.

Mugimendu kultural humanista honek, hezkuntza sistemari eta, bereziki, une hartan erabiltzen zen metodologiari, eskolastikari, egindako kritika orokorrean parte hartuko du. Erdi Aroko hezkuntzari buruz humanistek egiten duten kritika ezezkorra gure protagonistaren garaikideak diren egile askok mantenduko dute, besteak beste, Vives edo Rabelais ezagunak (azken hau medikua zen ere). *De tradendis disciplinis* edo *Gargantua* delakoek, hau da, egile horiek hurrenez hurren idatziko dituzten lanek, Erdi Aroko hezkuntza sistemari egindako kritika gogorra agerian utziko dute. Honela, metodoak, erakundeak, kurrikuluma edo Erdi Aroko gizonaren ideiala kritikatu dira, ondorioz, kausa pedagogiko bera zalantzan jarriko duen garai berria hasiko delarik.

Huarte humanista bat da, bere garaiko gizona eta batera asmatzaile, berri-zaile bikaina, bere garaia aurreratuz. Bere garaian zientzien arteko mugak ez daude argi, eta horregatik bere lana era ezberdinetan sailka daiteke eta jakintza alor ezberdinetatik ikusita interesgarria da. Laspalasen ustetan (1992: 148) bere lana ez da pedagogikoa soilik, psikologiarekin, fisiologiarekin, karakterologiarekin eta moralarekin, eta zientzien metodologiarekin zerikusirik duten gaiak jotzen dituela baizik.

Bere lanarengan eragiten duten iturriei dagokionez, berpizkundeko gizonari dagokion bezalaxe, klasikoena dugu, nahiz eta iturri hori bakarra ez izan, bere liburua «testu bibliko eta patristikoen tradizio klasikoaren —Galeo, Hipokrate, Aristotele, Zizeron— eta dagoeneko garai hartan ezaugarri propio eta zehatzak zituen berpizkunde izpirituaren arteko bateraketarako tokia delako» (Capitán, 1984: 377).

Huarteren humanismoa, espainiar humanismoak dituen ezaugarri osaturik dagoela dirudi, Europako humanismoaren aurka. Humanismo hau ez da Erdi Aroaren ezaugarri teologikoaren aurka joango, eta «bere egonezin humanistikoari dimensio erlijioso eta katoliko bat emango dio, pentsamenduari eta kulturari bide berriak irekiz» (Moreno, eta beste batzuk, 1986: 202). Iritzi honen aldekoa ere Laspalas izango da (1992: 148).

Lanaren lehenengo zatiak, lehenengo 14 kapituluek osaturikoa, «ageriko helburu pedagogikoa du, honako gaiei buruzko teoria erreflexiboan azaltzen dena: psikologia esperimental, giza psikologia, garun-patologia eta soziologia» (Escolano; 1985: 87).

Hasieran, **arimak hiru potentzia edo gaitasun** dituela azaltzen da (ulermena, memoria eta irudimena), hauetariko bakoitzari igarmen bat dagozkiolarik (intelektuala edo aktiboa, memoriazkoa edo harkorra, irudimenezkoa edo jenioa), eta, batera, azken hauetariko bakoitzari lanbide edo zientzia bat dagokie ere. Aipatutako irizpidearen arabera, doktore nafarrek zientzien sailkapen bat egingo du.

Egile gehienek ustez, Huarte Bacon-en aurretik doa zientziak sailkatzerakoan. Izatez, egile batzuen ustez, egile ingelesak nafarra hartu zuen oinarritzat bere sailkapena egiteko (Gutiérrez, 1968: 194).

Hau, Huartek bere lanean egiten duen **Zientzien sailkapena** da, edo Rodrigo Sanz-ek dio bezala, «bere garaiko gaitasun profesionalen» sailkapena; sailkapen hau haiekin bat egiten duen izaeraren arabera egiten du:

Memoriaren Zientziak (izaera hezea): teologia positiboa, hizkuntzak, medikuntza praktikoa, kosmografia, aritmetika, astronomia, militar artea.

Irudimenaren Zientziak (izaera beroa): poesia, bokantza, musika, medikuntzaren praktika, matematikak, politika, astrologia, pintura, hirikortasuna, txistek kontatzeko artea, e.a.

Ulermenaren Zientziak (izaera lehorra): teologia eskolastikoa, dialektika, filosofia, medikuntza teorikoa, jurisprudentzia.

I. koadroa

Gaitasunen sailkapena, igarmen motak, indibiduo motak eta lehenengoekin bat datozen zientziak

Gaitasunak	Igarmen Mota	Izaera	Indibiduo Klaseak	Bat datozen Zientziak
Memoria	Harkorra	Hezea	Memoriadunak (haurtzaroan batez ere)	Teologia positiboa, hizkuntzak, medikuntza praktikoa, kosmografia, aritmetika, astronomía, militar artea...
Irudimena	Jenioa	Beroa	Irudimentsuak (batez ere nerabeak)	Poesia, bokantza, musika, medikuntzaren praktika, matematikak, politika, astrologia, pintura, hirikortasuna, txistek kontatzeko artea...
Ulermena	Intelektuala	Lehorra	Intelektualak (batez ere gaztaroan)	Teologia eskolastikoa, dialektika, filosofia, medikuntza teorikoa, jurisprudentzia...

Galinok dion bezala (1968: 361), Huartek gai pedagogikoak ikuspuntu bikoitzetik enfokatzen du, indibiduala eta soziala. Ikuspuntu indibidualetik, analisi aukera ugari emango ditu, hezkuntzaren faktore indibidualetan oinarrituz. Ikuspuntu sozialetik Huartek, talentuen erabileraren arazo politiko-nazionala enfokatzen du, etekin handiena lortzeko gizartearen eta lanbideen beharren arabera.

Esparru indibidual honetan, Huartek azpimarratzen dituen **hezkuntzaren agente eta faktoreak** topa ditzakegu. Honakoak dira: ikaslearen igar-

mena, adina, maisuaren ekintza, ikasten den ikasgaiaren egituratze maila eta lan intelektualean emandako denbora (Lasपालas, 1992: 148-149).

Huarteren ustez, gainera, esparru indibidualean faktore erabakiorra, aipatutakoen artean, ikaslearen *igarmena* da. Igarmentaren aniztasunak konfigurazio pedagogiko ezberdinak zehazten ditu, ikasteko mentasunaren arabera. Era honetan, ikasle pasiboekin topo egin dezakegu, inolako buru bizkortasunik ez dutenak, eta beraz maisua behar dutenak. Beste batzuek ere irakaslearen beharra dute, baino erakusten zaizkien egiak errazago barneratzen dituzte. Hirugarren taldea, harreman intelektualak erraztasunez hartzen dituzten igarmenez dago osaturik, egiak berak hezi ahal dituelarik. Ikasle hauek irakaslearen beharra dute ere, nahiz eta denborarekin gaintitu.

Igarmentari dagokionez, Huarteren ikuspuntu honek eta sortarazten dituen ondorio pedagogikoez, pedagogia diferentzialaren aita berezitzat (baino ez bakartzat) hartzea egin dute¹⁰.

Kezkatzen diona goi mailako hezkuntza da batez ere; halere, **hiru eskolako adinen ezaugarriak** deskribatuko ditu: «haurtzaroa, nerabetasuna eta gaztaroa, hurrenez hurren hauetan memoria, irudimena eta ulermena menperatzaile dira» (Montilla, 1957: 164).

Capitán Díaz-ek (1984: 379-380) zehaztasunez deskribatuko du haue-tariko adin bakoitza, era honetan. Lehenengo adinean (14 urte arte) haurra diziplinatua izan daiteke, eta bere «samurtasunak» memoria izugarria ematen dio, eta horregatik du gaitasun berezia hizkuntzak, gramatika eta latina menperatzeko. Bigarren adinean edo nerabetasunean (14-25) «arrazoiketa artea landu beharko da, ulermena agertzen hasten baita»; dialektika eta jakintzaren oinarrizko printzipioen eta printzipio orokorren gainean pentsatzeko laguntzen dion zientziak erakusteko unea da. Gaztea zientziak ikasteko prestaturik dago, Unibertsitatera jotzeko momentu egokiena delarik.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren bideratzaile bezala, Huartek espezializazio goiztiarra eta Unibertsitatera jotzea gomendatzen du, posible bada, bere herrialdetik edo jatorrizko lurraldetik kanpo (Bowen, 1986: 546). Kaleko hizkuntzen erabilera gomendatzen du ere, irakaskuntza gailu bezala (Montilla, 1957: 164).

Huartek bere liburuan ez du **irakasle-eskolari buruzko lanbideari** buruz hitz egiten; halere, bere lana tonu pedagogikoz beterik dago, eta hemendik maisuaren funtzioak har daitezke. Aztertutako egileen artean, Angeles Galino (1968: 365-368) da Donibaneko Huartek bere *Argitasunaren Azterketa* lanean maisuari dagozkion betebeharrak hoberen deskribatzen dituen. Honela, honako **maisua funtzioak** deskribatu eta justifikatuko ditu:

¹⁰ Honela deitzen dutenen artean egile ezberdinak ditugu, Capitán Díaz (1991) eta Moreno eta beste batzuk (1986). Aurrerago aipatuko ditugun beste izenekin topatzea normala da ere.

- Ikaslearen igarmen motaren diagnostikoa.
- Ikaslearen hautaketa komeni zaion ikasketa motaren arabera.
- Hautaketaren osagarria den Irakaslearen funtzio bideratzailea.
- Zuzentze edo antolakuntza funtzioa (ikasketen denbora, tokia eta gaitasunak zehaztea).
- Irakaskuntza ekintzaren funtzio maieutikoa. Zalantzak sortarazteko artea.
- Ikasketa bideratzeko funtzio didaktikoa.

Huarteren tesi nagusiak, jatorrizko talentuari eta talentu zehatzari edo berezituari kasu egiteko beharra nabarmentzen du. Irakasleak ikasle bakoitzaren igarmena eta komeni zaion zientzia topatu beharko du; Irakasleek ikasleen izaera kontutan hartu behar dute, zuzenbidea, filosofia edo medikuntza ikasketetarantz bideratu baino lehen. Espezializazio honetaz gain, Buenaventurak (1999: 118) bideratze profesional egoki bat lortzeko beste osagai batzuk proposatzen ditu, garai hartan Huartek kontutan hartu ez zituenak: «famiaren eta gizartearen giroa, jasotako ohiturak, bakoitzaren motibazio pertsonala eta borondatearen indarra».

Irakasle honek jakintsua izan behar du, arduraduna, eta bere ikaslea zaindu beharko du, zuzen lan egin dezan (Bowen, 1986: 546).

Irakaslearen funtzioekin zuzenean erlazionaturik —batzutan bata bestearen gainean egon daiteke— **irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren fa- seen** deskripzioarekin topo egiten dugu (Laspalas, 1992: 149):

1. Ikaslearen igarmenaren diagnostikoa. Huartek aipatutako «igarmen» motak bereizten ditu: memoria, irudimena eta ulermena.
2. Igarmenari dagokion zientziaren hautaketa. Igarmen bakoitzari lehen aipatu ditugun zientziak dagozkio.
3. Ikasketen graduatzea. Adina funtsezko garrantzia duen faktorea da, hezkuntzaren lehenengo uneetan. Garai bakoitzean zientzia bat ikas daiteke.
4. Irakasle hoberenaren hautaketa. Esparru honetan bi faktore izan behar ditugu kontutan: irakasleak irakasten duen ikasgaiaren eza-gutza eta bere irakaskuntzaren zuzentasun morala.

Huarteren tratatua **hezkuntzaren baldintzapen somatiko**en ikerketei buruzko ekarpen batekin amaituko da, eugenesiari buruzko gaiak jotzera-koan. Galianoren ustez (1968: 370), «behatu beharreko higie-ne eta hezkuntza metodoak zehaztea komenigarria da, jatorrizko izaera onak kontserbatzeko eta hobetzeko, eta honela igarmen hoberenak prestatzeko». Nahiz eta ikertutako pedagogoen kontutan ez izan, Huartek aipatzen duen baldintzapen somatiko bat sexua da. Bere ikuspuntutik —eta Vives bere garaikidearen aurka—, emakumearen jatorria ez da egokia igarmena garatzeko eta horrexegatik etorkizuneko gurasoei gizonezkoak izatea gomendatzen die, «seme-alaba jakintsuek eta letrentzako gaitasuna dutenez gozatu nahi ba-

dute, emakumeek igarmen sakona ezin baitute lortu, beren hoztasuna eta sexuaren hezetasuna dela-eta» (Huarte, 331). Zergati biologikoak emango ditu ere, herri ezberdinen artean dauden ezberdintasunak eta berezitasun fisiko eta moralak azaltzeko.

Jarauntsitako baldintzapan hauek kontutan izanda ere, Escolanoren (1985: 87) ustez, Huarteren lanetik eskolak kontutan izan beharreko **lau axioma pedagogiko** atera daitezke:

- a) Jaio aurretiko hezkuntza. Jarauntsitako faktorea argi eta garbi dagoenez, hezkuntza jaiotza aurretik hasiko da.
- b) Psikologia eta pedagogiaren arteko harreman beharrezkoa. Ezin du psikologiarik gabe pedagogiarik egon.
- c) Hezkuntzaren helburua, trebetasun pertsonalen garapena lortzen saiatzea da.
- d) Ikaskuntza planek hiru faktore mota kontutan izan beharko dituzte: adina, fakultate menperatzailea eta hierarkia (memoria, irudimena eta ulermena).

5. IRAUPENA

Aztertutako pedagogoez, orokorrean, aurreratutzat hartzen dute egile nafarra. Huarte, esparru ezberdinen sortzailatzat hartzen dute: pedagogiaren esparruan («ikaslearen ikerketa biopsikologikoan funtsa duen pedagogia bereizgarriaren oinarriak ezarriko ditu») (Capitán, 1984: 384), psikopedagogiaren esparruan («egungo psikologia pedagogikoren eta psikoterapiaren bultzatzailea») (Bowen, 1986: 546), eta psikologiaren esparruan («psikologia bereizgarriaren eta biderapen profesionalaren jatorria») (Buenaventura, 1999: 118). Galianok (1968) eta Escolanok (1985:88) kalifikatzaile berbera emango diote: «psikologia bereizgarriaren, biderapen profesionalaren eta hautaketa profesionalaren aita»; Montillak (1957) eta Morenok eta beste batzuk (1986:211), «egungo psikologia espermentatzailearen sortzailatzat» hartuko dute.

Zientziari egindako Huarteren Ekarpeneren esparru honetan, egile gehienek aldaberatasun handiena adieraziko dute. Honela, ikertutako pedagogiari buruzko tratatuetan, Huarte honako esparruen sortzaile dela esango da, hauen oinarriak ezarriz (ikus koadro sinoptikoa):

- pedagogia bereizgarria
- psikopedagogia
- psikologia pedagogikoa
- psikoterapia
- psikologia bereizgarria
- biderapen profesionala
- hautaketa profesionala
- psikologia espermentala

Ikertutako egile batek bere metodoa, baita ere, aurreratutzat hartuko du, «ikerketa zientifikorako metodo zeharo modernoa erabili zuelako» (Gutiérrez, 1968:194).

Ikertutako egileen artean, Huarteren ekarpena eta iraupena sintesi handiagoz azalduko duena, Capitan Diez (1984:379) izan daiteke, honakoa aipatzerakoan: «bere ekarkin nagusia, hautaketa profesionalean parte hartzen duten oinarritzko elementuak harremanean jartzea da: igarmena, zientzia eta gaitasuna».

6. Ondorioak

Aipatutako bigarren mailako iturrietan Huarteren lan pedagogikoaren gainean egindako tratamenduari dagokionez, honako ohar laburrak aipa ditzakegu:

- Bere tesi nagusian bat etortzea, eta beraz, «jakintsutzat», «aurreratutzat» edo «sortzailatzat» kalifikatze komuna, Huartek naturaz talentuen baztertzea berez planteatu zuen lehenengoa izan zelako, bideratze profesionalerako oinarri bezala.
- Aztertutako egileetan, Huarteren ekarkinen kontzeptualizazio pedagogikoa ez da beti aldebereotasunean emango. Honela, zenbait egilerentzat irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren «faseak» diren bitartean, beste batzuentzat «axiomak» dira, nahiz eta edukian gutxi gora behera bat egin. Artikulu honetan, argi eta garbi bereizi daitezkeen elementuak baino ez islatzen saiatu gara.
- Bestalde, Huarteren jaiotzetiko ezaugarria azpimarratzea komuna da. Baxenabartarraren ustez, pertsonen talentuen artean dauden ezberdintasunak ez datoz, ez garapen pertsonaletik, ezta hezkuntzatik ere, jaiotzatik datozela baizik, nahiz eta innatismo hau izaerari loturik egon, ez arimari. Haurrak, jaiotzerakoan, ez datoz tabula rasa batekin, hau da, trebetasun jarauntsiak dituzte, ezberdinak eta indibidualak, garuneko jatorria dutelarik. Ideia hau azaltzeko beste era bat «determinismo psikologikoa» izendatzea izango litzateke (Galiano, 1968:361). Definizio honen arabera, jaiotzerakoan, herentzia zehatz bat dugu, eta honen arabera, ikaskuntzaren iturriak aprobetxatu ahaliko ditugu edo ez. Beraz, proposamen hau eta Bowen-ek landutakoa (1986:547) ez dira bateragarriak; Bowen-en proposamenaren arabera, Huarteren proposamen psikologikoaren eta psikologia behaviorista garaikidearen arteko lotura izango litzateke; erlazio hau, pedagogoa bere liburuan garatzen ez duenez, nahasia dela deritzogu, ikerketa beharko lukeelarik.

Beharrezkoa da aipamen bat egitea. Nahiz eta nire analisiaren helburu ez izan, eta beraz, nahiz eta era sistematiko baten bidez ez konprobatu,

Hezkuntzaren Historiaren ikerlarien jatorri geografikoaren faktoreak, geure protagonistak eskaintzen duen tratamendu dokumentalaren sakontasunean eragina duela dirudi. Honela, espainiar Estatuko egileek¹¹ landutako pedagogiari buruzko ia tratatu guztietan Huarteren papera agertzen den bitartean, ez dut egile frantses garaikideek idatzitako Hezkuntzaren Historiari buruzko hiru liburuetan aurkitu (E. Durkheim, G. Mialaret eta J. Vial, ...), nahiz eta, XVI. mendean zehar Frantzia *Anacrise*-ren —1580. urtean frantsesera itzulitako lanari emandako izenburua— eragina izugarri handia izan¹². Juan Huarteren papera ez dut aurkitu, ezta ere, Pedagogiaren Historiaren beste lan klasiko batetan, hots, N. Abbagnano eta A. Visalberghi italiarren lanean. Halere, pentsalari honen lana ikertu eta gero, aztertutako egile askok egiten duten bezalaxe, Donibaneko Juan Huartek bere indarrez Hezkuntzaren Historian toki pribilegiatu batetarako eskubidea eskuratu duela esan daiteke.

¹¹ Nahiz eta hauetariko batzuen lanean soilik aipaturik agertu, hots, honako egileen lanean; ESTEBAN, L. eta LÓPEZ MARÍN, R. (1994): *Historia de la Enseñanza y la Escuela*, Valentzia, Tirant Lo Blanch.

¹² XVII. mendean (1989: 25) Descarte-ren lanak alde batera utziko du. Arquiola-ren usteetan (1989: 25), Rousseau-k nagusitzen zituen maisu frantsesak Huarteren tesi biologizistetatik aldentzen dira. Geure ustez, hau ez da pentsalari honen papera frantses historiografia pedagogikoan ez barneratzeke zergatia.

II. koadroa

Iturrien edukiaren koadro sinoptiko konparatiboa

Egilea	Biografia/testuingurua	Lana	Ekarpena pedagogikoak	Iraunkortasuna
Bowen, J. (1986)	Espainiar medikua (1529-1588). Mugimendu erreformistaren bame dago.	Beneko hedapena lortu zuen, askotan berrinprimatua eta itzulita izan zelako (1580. urtean frantsesera, 1582.ean italiarera, 1596.ean ingelesera, 1622.ean latinera, 1752.ean alemaniarera)	Irakasleak ikasle bakoitzaren igarmena eta komentazioen zientzia bilatu beharko du; maisu jakintsu eta emankorraren eskuetan espezializazio goiztiarra jasoko du, bere jaioterrik urrun, maisuak ordenez lan egiten duela zaindu beharko duelarik.	Psikologia pedagogiko modernoren eta psikoterapiaren aitzindaria. Bacon-ek baino 25 urte lehenago sailkatuko ditu zientziak. Gall eta Lavater-en frenologian eragina izango du. Psikologia behaviorista garaikidearekin lotura du.
Buenaventura, A. (1999)	Mediku nafarra.	xvi. mendeko lan originala.	Ikasleak zuzenbidea, filosofia edo medikuntza ikasketetarantz bidali baino lehen, maisuek beren izaera kontutan hartu beharko dute.	Haurrak, mundura etortzerakoan, ez datoz tabula rasa batekin, trebetasun jarauntsiak dituztela baizik, ezberdinak eta indibidualak, garuneko jatorria dutelarik. Bere interesa medikuntzazkoa, pedagogikoa eta politikoa da. Psikologia bereizgarriaren eta bideratze profesionalaren jaiotza.
Escolano, A. (1985)	Donibane Garazin (Nafarroa) jaiotako humanista, mediku eta filosofo espainiarra. Alcalán lortu zuen doktoretza (1559). Eskolastiko on bat bezala, arimaren hilezkortasuna ez du ezeztatzen.	Europar hizkuntza ezberdinetan 24 argitarapen lortuko ditu.	Lau axioma pedagogiko: a) jaioaurreko hezkuntza, b) pedagogian psikologiaren beharra, c) trebetasun pertsonalen garapena, d) adina, gaitasun menperatzailea eta hierarkia kontutan izatea.	Tesia: arima guztiak oinarrian berdinak dira; ezberdinak —talentuen artean dagoen ezberdintasuna, bai zientzien ikaskuntzarako baita lanbideen burutzerako— jaiotzetikoak dira, eta beraz ez daude arimaren menpe, izaeraren menpe baizik. Psikologia bereizgarriaren, bideratze profesionalaren eta hautaketa profesionalaren aita, baita Gall-en fisiologiaren eta Lavater-en fisiognomikaren aitzindari ere.
Capitán, A. (1984)	Ez du inolako biografia daturik aipatzen.	Ez du argitarapen daturik aipatzen. Klasikoekin zuen harremanaren azalpena. Vives-en aszendentzia.	Ingarmen bakoitzarekin lortzen den adin, arte eta zientzia bakoitzaren azalpena. Maisuaren funtzioen deskribapena.	Ikaslearen ikerketa biopsikologikoa oinarrituriko pedagogia bereizgarriaren oinarriak.
Capitán, A. (1991)	114. orria: (1530-1588) 192. orria: (1529-1588) Mediku eta humanista.	Ez du argitarapen daturik aipatzen. Klasikoekin zuen harremanaren azalpen zehatza: Galeano, Platon, Aristotele. Vives eta Erasmoren eragina.	Hiru adinetan, ikaskuntzarako potentzialtasunen deskripzio zehatza.	Igarmen azterketa Chomsky-ren gramatika sortzailean. Pedagogia bereizgarri baten eta bokazio bideratze baten edo bideratze profesional baten oinarriak.

Egilea	Biografia/testuingurua	Lana	Ekarpena pedagogikoak	Iraunkortasuna
Galino, A. (1968)	1529. urtean Behe Nafarroan jaio zen, eta 1588. urtean hil zen. Ziur aski Baezan ikasi zuen eta Alcalá de Henaresen medikuntza ikasketak burutu zituen; bertan batxilergoa, lizentziatura eta, 1559. urtean, doktoratua eskuratu zuen.	Bere lana gutxienez 62 bider berrargitaratuko da hizkuntza ezberdinetan, ikerketa objektu garrantzitsua bihurtuko delarik.	Maisuaren funtzioen azalpen zehatza.	Ingarmenaren kontzeptu psikofisikoa. Determinismo psikologikoa. Psikologia bereizgarriaren aita eta bideratze profesionalaren aitzindaria.
Gutiérrez, I. (1968)	Nafar medikua (1530-1591). Huescan Giza Zientziak ikasi zituen. Felipe II.-aren mediku izan zen.	Argitarapen arrakasta. Platon, Aristotele, Galeno eta Vives-en eragina.	Pedagogia errealista. Jaio-tzetiko jarrera.	Psikologia bereizgarriaren lehenengo tratatua. Bacon-en aurretik mende bat.
Laspalas, J. (1992)	1530-1588. Donibane Garazi herrian jaio zen —garai hartan oraindik nafarra zen herria—. Ez zen mediku edo psikologo soilik izan. Humanista.	Egilearen bizian zehar gutxienez bederatzir argitarapen. 1579 eta 1580 urteen artean lana Ofizio Santuari aurre egin beharko dio. Luis Vives-ekin lotura ugari ditu, nahiz eta kalitatean eta zabalpenean ezin alde-ratu.	Originalena, egileak proposatzen duen bideratzen profesionalaren teoria da. Hezkuntzaren agente eta faktoreak. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren faseak deskribatzen ditu.	Bere planteamenduen originaltasuna.
Montilla, F. (1997)	Frantziar Nafarroan jaio zen (1530-1591). Huescan Giza Zientziak ikasi zituen. Felipe II.-aren mediku izan zen.	Sei hizkuntzataratatu izuli zen.	Goi mailako hezkuntza da bere kezka nagusia, baina, halere, bi eskolako adinen ezaugarriak deskribatuko ditu: haurtzarora, nerabetsutasa eta gaztarora.	Hezkuntzaren Historian pribilegiozko tokia. Printzipio nagusia: betebeharr zientifiko eta profesional bakoitza trebetasun zehatz batzuei dago loturik. Bideratze profesionalaren teoria.
Moreno, J.M. eta beste batzuk (1986)	1530?- 1588 eta 1595 artean Espainiar Humanismoaren ezaugarri teologikoak. Medikua, psikologia.	Zazpi hizkuntzataratatu izuli zen. Debebatuen indizea. Lehenengo zatiak, gai psikologikoa joko du, bigarrenak biologikoa.	Ez da pedagogio profesional bat. Hautaketa profesionalaren eta bideratze profesionalaren beharra adierazten du. Eskola sariak. Hizkuntza sinpleak gomendatzen ditu.	Psikologia esperimental modernoaren sortzailea. Espainiar pedagogian eta pedagogia unibertsalean garrantzi izugarria. Modernotasun harrigarria. Psikologia bereizgarriarentzat Ekarpena. Psikologia esperimentalaren aitzindaria. Karakterologian eta tipologian orokortasunak: psikologia pedagogiko bereizgarria.

Jasotze-data: 2004-03-09
Onartze-data: 2004-04-04

The central contribution of this article is based on the treatment given to «Donibaneko Juan Huarte» in secondary sources, particularly in those which refer to the History of Pedagogy and the History of Education. Therefore, the key to the article will be the analysis of the contents of these sources in the field of teaching knowledge. The work of Huarte is examined based on the following four central points: biography/context, work, pedagogical contribution and length of time.

Keywords: Historical research. 16th century. Navarra. Biography. Vocational guidance.

El centro de la aportación de este artículo se basa en el tratamiento que recibe «Donibaneko Juan Huarte» en las fuentes secundarias, sobre todo en aquellas referidas a la Historia de la Pedagogía y a la Historia de la Educación. Por lo tanto la clave de este artículo será el análisis del contenido de estas fuentes en el campo del conocimiento instruccional. En el mismo se analiza el trabajo de Huarte tomando como base los siguientes cuatro ejes: biografía/contexto, trabajo, aportación pedagógica y pervivencia en el tiempo.

Palabras clave: Investigación histórica. Siglo XVI. Navarra. Biografía. Orientación profesional.

L'essence de la contribution de cet article se base sur le traitement donné à «Donibaneko Juan Huarte» dans les sources secondaires, en particulier celles qui se réfèrent à l'Histoire de la Pédagogie et à l'Histoire de l'Éducation. Par conséquent la partie essentielle de cet article porte sur l'analyse du contenu de ces sources sur la base de la connaissance pédagogique. On y analyse le travail de Huarte en prenant comme base les quatre axes suivants: biographie/contexte, travail, contribution pédagogique et durée dans le temps.

Mots clé: Recherche historique. Navarre. Biographie. Orientation professionnelle.

Bibliografía

- ARQUIOLA, G. (1989): «Consecuencias de la obra de Huarte de San Juan en la Europa moderna». *Huarte de San Juan*, 1, 15-28.
- ARRIZABALAGA, J. (1989): «Filosofía natural, psicología de las profesiones y selección de estudios universitarios en la Castilla de Felipe II: La obra y el perfil intelectual de Juan Huarte de San Juan (ca. 1529 - ca. 1588)». *Huarte de San Juan*, 1, 29-64.

- BOWEN, James (1986): *Historia de la educación occidental*. Bartzelona: Herder.
- BUENAVENTURA DELGADO, A. (Koord) (1992): *Historia de la educación en España y América*. Madril: Morata.
- BUENAVENTURA DELGADO, A. (1999): *Historia de la infancia*. Bartzelona: Ariel.
- CAPITÁN DÍAZ, A. (1984): *Historia del pensamiento pedagógico en Europa* (1 alea). Madril: Dykinson.
- CAPITÁN DÍAZ, A. (1991): *Historia de la educación en España* (1 alea). Madril: Dykinson.
- DEBESSE, M; MIALARET, G. (1973): *Historia de la Pedagogía*, (1 alea). Vilassar de Mar: Oikos-Tau.
- DUCHÉ-GAVET, V. (Koord) (2003): *Juan Huarte Au xxie Siècle. Actes de Colloque*. Baiona: Atlantica.
- DURKHEIM, E. (1990): *L'Evolution pédagogique en France*. Paris: PUF.
- ESCOLANO BENITO, A. (Koord) (1985): *Historia de la educación. Diccionario de ciencias de la educación*. Madril: Anaya.
- GALINO, A. (1968): *Textos Pedagógicos Hispanoamericanos*. Madril: Iter.
- GOYHENETCHE, M. (1989): «Baja Navarra en el siglo XVI, Aspectos Culturales y Sociales». *Huarte de San Juan*, 1, 59-63.
- GUTIÉRREZ ZULUAGA, I. (1968): *Historia de la educación*. Madril: Iter.
- HUARTE DE SAN JUAN, J. (1988): *Examen de Ingenios para las Ciencias*. 1575, Esteban Torrerren 1988. urteko argitarapena. Madril: PPU.
- IRIARTE, M. DE, (1984): *El Doctor Huarte de San Juan y su Examen de Ingenios. Contribución a la psicología diferencial*. 3. argitarapena. Madril.
- JIMENO JURIO, J.M. (1997): *Navarra, historia del euskera*. Tafalla: Txalaparta.
- LASPALAS, F.J. (1992): «Juan Huarte de San Juan», Buenaventura Delgado, (Koord), *Historia de la educación en España y América* delakoan. Madril: Morata, 147-151.
- MONTILLA, F. (1957): *Historia de la educación*. Valladolid: Gráficas Andrés Martín.
- MORENO, J.M.; POBLADOR, A.; DEL RÍO, D. (1986): *Historia de la educación: Edades Antigua, Media y Moderna*. Madril: Paraninfo.
- PITA MACAYA, R. (2001): «Huarte de San Juan: Las revistas de la Universidad Pública de Navarra». *TK*, 11-12, 95-101.
- REY ALTUNA, L. (1983): «El doctor Huarte de San Juan a la luz del Examen de Ingenios. Apuntes bibliográficos», *Príncipe de Viana*, 168-170, 199-223.
- REY ALTUNA, L. (1989): «El humanismo psicológico del doctor Huarte de San Juan». *Huarte de San Juan*, 1, 65-80.
- SAÉZ, R. (1989): «Huarte de San Juan o el nacimiento de la conciencia crítica». *Huarte de San Juan*, 1, 81-95.
- UHARTE, J. (1996): *Zientzietarako Argimenen Azterketa. Xabier Kintanaren Itzulpena*. Klasikoak.
- VIAL, J. (1995): *Histoire de L'Education*. Paris: Presses Universitaires de France.
- VISALBERGHI, A.; ABBAGNANO, N. (1974): *Historia de la Pedagogía*. Madril: Fondo de Cultura Económica.